

ANA NON Agustin Gomez Arcos-ek frantsesez ezkiribatürrik

Ikusgarria 2007an Hebertiken baitatik sortü da Bruno Holmaert, Maika Etxekopar, Nadine Mailharin, Joana eta Oihana Larrandaburu - ekin, Nicole Lougarot-en lagüntzarekin

Ana Paücha, iratzar zite. Kita ezazü zure etxea ekia arrasortü beno lehen. Argizagia hilik da. Zure eginbeharrek ez düe lekükorik behar. Ez kabale. Ez izar. Hori, hori zünüan desiro kaideran loak hartü zütüalarik, adeja : herexarik ützi gabe joan. Ordü düzü. Bidaje hau txütik eraman behar düzü, lotsarik gabe. Esperantxa honekin : ni ez nizateala zurekin bizia bezain gaixto.

Igitzen da, izate beltz. Ez da gaü beltzarengatik hainan beltz. Haren arropa beltzen beltza da. Dolüminak aldatürrik, xurpailtürrik. Ana non. Lehen xuri zen. Orai haren xuri ikusteko, xuri senditzeko, hirutan hogei urtez gibeltü behar lizate, hamabost bedatse xuri baizik ez zütüan aro ahantzietara. Ützültze gaitza, ezinezkoa, orhitzapen türbütsetan gora, beraren gainen biribilkatürrik. Ez zen orano Ana Paücha deitzen. Ez eta Ana non. Baizik eta Ana. Anita.

Txütitzen da, akitze beltz. Bazterrer so bat lüzatzen. Hatüa prestik da. Ez da pezü. Ogi bat amanda doi doia, olio, anis eta hanitx sükratü. Pastiza bat, lioke. Hartzea, besterik ez da. Eta joan. Hori salbü, oro goititürrik da. Atzo orano, bi salak eta barrioa ontsa erraztatü ondoan, hur argiz busti dütü, jasmin lilia hureztatü, oihala sahatü eta lisatü. Jenteak sekülan ez dezan erran Ana Paücha zikiña gibel ützirik etxerik joan dela. Ala goititü gabe. Ez da kente hortakoa... Mentsak leküa hartüko beito, etxe propia ützi deio. Mentsa, badaki. Hogeita hamar urtez taigabeko lagünzalea izan da. Zintzo egon da, mentsa. Egün, adio erraiten deio. Aiherrik batere gabe izan bedi, sahüki. Ana Paüchak batzarri hon egiten dü. Mentsak orhitzapen lifenta düke, gogo güzietarik elki den Ana Paücharena.

Hatüa hunkitzen dü, eskütatzen, oihalaren lau kanttoekin opilo hirukoitza egin düala segürtatzeko. Semea haidürü dü. Txipia. Harentako dü amanda ogi hori hontü, olio, anis eta hanitx sükratü, pastiza bat, lioke, haren ama esküek moldatü azkena. Lehena moldatü züan ber erritmoan, berrogeita hamar urte lehenago. Ber errezetarekin. Ber botzarekin. Ber amodioarekin. Kantan, ohartü gabe. Eta labea eho dü, hautsak ate txipi batetan bildü eta gotzaren gaina urtuki.

Gaü ülünean barna elkitzen da ametsik gabeko loa bezala. Hola hobe. Aüzoer adiorik ez, ez eta barrioa itzaltzen düan mahastiari. Ogi purruxken eske esküala horra zitzaion bi eliza txorier ere ez. Romeo eta Juliette izentatü zütüan. Alta ez daki Romeo eta Julietten istoria zoin den.

Ihurk ez daki, sekülan ez dakike, behin erran düala: " Jinko, ahazten zütüt. Ez zitzait deusentako balio". Erabaki handius honen jakile ekia besterik ez zen egün hartan. Azkarrago argitü züan ordüan, Ana Paücharekin bozteko bezala.

Hasperen bat. Bihar ez date haboro hor. Erretretako sos apürra, bideko begiratzen dü. Faxe pean, sabeleko axal misterioetsüaren kontre. Sabela. Hiru haur egin dütü. Hots kartzela bat eta tunba bi. Erran dezagün haren sabela ez dela bizi azolatzen. Prefosta, bizia eman züan, hori bai. Hiru aldiz bederatzü hilabete kantore, nahi bada. Bena herioa sortzen züan. Hogeita hamar urte dolümin. Ana beltz, orai düala hogeitahamar urte hasirik.

Txipi. Txipiñi. Khüpüts. Ez da xüxen egoiten, lürrak hilen botzez beregana deitzen düanez geroz. Bena bestea, txipia, beti bizi da. Ordüan hortzak tinkatü dütü. Herioari ez. Eta aitzina. Bürütos, lürpeko hura bezain. Herotsik gabe. Eta itxürarik gabe abantsü. Zühain baten itzala, ala harri batena. Mürrü baten itzala. Zoin nahi itzal. Ana motx, erregiña esteiari baten gisa.

Borta zerratzen dü. Giltzatzen. Bestek jakin dezen, behinkotz norbait ikustera horra bazaio, ez dela hola joan,bürütik joanik, bena bai jakinez, behin betiko joaiten den bezala, giltzari bi üngürü emanik, hasperen bat, betiko zerratü den bortari so egonik, eia esku batek behin zabaltüko düanez berriz ere, berdez tintatü taula pusatüko, eia beste begiek barne horri so eginen dioienez biziaren alojatzeko asmoan.

Üsatüzko losapean giltza ezarten dü. Emeki etzaten dü, lekü haütüa txerkatzen, lehen haurrak etzaten zütüan bezala. Eta zertarako? Nork txerka lio? Harek segür ez. Arreginen ez dütüan jestoak badira. Sekülako.

Losapean giltzaren txerkatzea bezala, gaü oroz, beste eskü zonbaitek hura gabe hartürrik dükeelako esperantxa hürrünarekin. Txipiaren esküek. Kartzela, ez dü sekülan sinetsi betirakoa zenik. Hitz horiek – betirako kartzela - beti ohiltü dütü. Lehen gütünean ezkiribatürrik ziren; faktürak ükorik egin gabe irakurri zütüan, jenteak hunkitzen ez dütüan destorbüak irakurten dütüan bezala. Gütün hura eta bere erran nahia haren izatetik ezabatü dütü. Bigerren gütüna, ez dü zabaltu. Ez hirugerrena, ez ondokoak, hilabete oroz hogeita hamar urtez. Oro erre. Ez zen gütün baten haidürü, haren semearen baizik. Hola, mirakülüa egük lio. Egün oroz. Jinkoarekin agitüetara artino. Batere ikaragarri. Hitz labür eli bat. Tanpezko erabakia. Jinko, ahazten zütüt. Ttutt. Akabo.

Gaüan barna sartzen da, bidea bühürtü gabe. Azken begiradarik ez, adiotako so bat ere ez. Bürüa sartürrik, lürrari so. Herria hilik da. Ana Paücha, haren senarra, haren haurrak, haren bizia, oro hilik. Hilherri ülhün hontan, dagün hiltze egiazkoa bizirik den bakotxa da. Oraidanik harekin dü Ana Paüchak tratatüko. Beste hitzik, beste jectorik, beste manerarik ikasi beharko dü. Ützirik ihur ez izatearen aiseria hütsa. Kargü baten jaunsten hasten da, norbait bilakatzen. Hiltzera doan norbait.

Bat batetan, oritzapen batek inhaziak bezala memoria ürratzen do. Pedrok hona dio: "Gustüan nün, Anita. Emazte bat, hiru seme. Orai Errepublikan gira. Oroek desiratü dügün Errepublika. Hau da hau gizon baten bizia. Bizi osoa... Erriz besarkatzen züan." Ez zaina plazer azkenean norbait izatea? Mündüan nornahi bezala?,, Ez ziren ihur ere. Ana Paüchak orai badaki. Bürüa iharrausten dü. Norbait dela sinetsarazi nahi deion memoriari zeditzea müsatzet. Ana non.